

LURRAREN KONTRIBUZIOA

1. ordenantza

Hobariak

1. artikulua.- Hobaria, eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinatarako.

1.1. Jabetza horizontaleko araubidearen mende egon ez eta eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak –dela banaka, dela beste higiezin batzuekin partekatuta– autokontsumorako instalatuta dituzten higiezinak hobaria izanen dute zergaren gaineko kuota osoaren gainean instalazioa noiz amaitu eta hurrengo hiru zergaldietan, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Instalazioek dagokien udal-lizentzia eduki behar dute, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta.
- b) Beroa sortzeko instalazioek kolektoreak eduki behar dituzte, administrazio eskudunak behar bezala homologatuta.
- c) Subjektu pasiboan errentek, salbuetsiak alde batera utzita, ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxieneko soldata halako lau.

1.2. Hobariaren ehunekoa % 50 izanen da hala bizitegi-erabilerako higiezinetan egindako instalazioetarako nola bizitegi-erabilerako ez beste higiezinetan egindakoetarako.

Urteko hobariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu instalazio-lanen exekuzio materialagatik jabe bakoitzari eragindako kostuaren % 30a.

1.3. Jabetza horizontaleko araubidearen mende egonda instalazio partekatua egiten duten higiezinak –dela haietan kokatutako etxebizitza eta lokal guztiak dela haietako batzuk energiaren hornitzeko, eta ez bakarrik elementu komunak– hobari berdina jasotzen ahalko dute, baldin eta aurreko apartatuan aipatutako baldintzak betetzen badituzte. Hobaria instalazioari lotutako etxebizitza eta lokalek bakarrik jasotzen ahalko dute, eta hobaria % 50 izanen da hala bizitegi-erabilerako kasuetan nola bizitegi-erabilerako ez bestekoetan.

Urteko hobariaren zenbatekoak ezin izanen du gainditu instalazio-lanen exekuzio materialagatik jabe bakoitzari eragindako kostuaren % 30a.

1.4. Hobaria ez da aplikatuko energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak instalatzea nahitaezkoa den kasuetan, gaiari buruzko berariazko araudiarekin bat.

1.5. Hobaria edozein unetan eskatzen ahalko da hura baliatzeko gehieneko epea amaitu aurretik, eta eragina izanen du, kasuan-kasuan, eskaera noiz egin eta hurrengo zergalditik aurrera.

1.6. Hobaria aplikagarri izateko baldintzak betetzen direla justifikatzeko, eskaera egiten den unean aurkeztu behar dira proiektua edo memoria teknikoa eta adierazpen bat, teknikari eskudun batek sinaturik eta dagokion elkargoak ikus-onesita –edo halakorik ezean, gaikuntza teknikoa egiaztatzeko agiria–, non berariaz geldituko baita jasota instalazioak aurreko apartatueta ezarritako baldintzak betetzen dituela hobariaren xede izateko.

Horrez gain, subjektu pasiboak aurkeztu beharko du PFEZaren gaineko aitorpenaren edo likidazioaren kopia –eskaera noiz egin eta jada data horretan aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona–, edo, halakorik aurkezteko betebeharririk ez badu, eskuratutako errenten justifikazioa, eskaera noiz aurkeztu eta data horren aurreko ekitaldikoak. Alor kudeatzaileak ezarritako kasuetan non posible baita ofizioz egiaztatzea, eskatzaileak betekizuna egiaztatzeko aurkeztu behar duen agiriaren ordez egiaztapen horretarako behar den baimena aurkeztuko du.

Jabetza horizontaleko araubideko etxebizitza eta lokalen kasuan, eskabideari dokumentazioa erantsi beharko zaio adierazteko nor diren instalazioan parte duten jabeak eta jabe bakoitzari jasanarazitako kopuruak, bai eta bidezko jotzen den beste edozein agiri ere.

Karga-tasa:

- Hiri-unitateak: % 0,3997
- Landa-unitateak: % 0,8000

Xedapen gehigarria

2024an balioespen txostena izapidetzen amaitu beharko dute, 2025eko kontribuzioan aplikatzeko moduan egon dadin.